# MARKEL ETA BALOIA



Markelek, eskolatik irtetzerakoan, futbolean jokatzen zuen.

Egun batean, beti bezala, bere lagunekin jolasten ari zenean, Markelen lagun batek ostiko bat eman zion baloiari eta errepidera erori zen.

Markel korrika joan zen baloia hartzera, baina orduan kotxe bat azaldu zen eta Markelen baloia zapaldu zuen. Markel oso triste jarri zen. Orduan, kotxetik gizon bat atera zen, Markelen futbolari gustukoena zen. Honek baloia sinatu zion eta joan egin zen.

Markelek bere logelan ipini zuen baloia, trofeo bat izango balitz bezala.

- ERANTZUN

Zein da testuaren izenburua?

Zer egiten zuen Markelek eskolatik irtetzerakoan?

Zer egin zion kotxeak baloiari?

Nor atera zen kotxetik?

Zer egin zuen futbolariak?

Zer egin zuen Markelek baloiarekin?



- IDATZI **E** (EGIA) ETA **G** (GEZURRA)

☐ Markelek, eskolatik irtetzerakoan, harrapaketan jolasten zuen.

☐ Baloia balkoi batera bota zuen.

☐ Baloia errepidera bota zuen.

☐ Moto batek baloia zapaldu zuen.

☐ Kotxe batek baloia zapaldu zuen.

☐ Futbolariak baloian sinatu zuen.

☐ Markelek egongelan ipini zuen baloia.

